


AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



**Larrearen berriena,
Durangoko Azokan**

"Kosmetikoak sendabelarrekin", uzta freskoa / 8-9

DANI BLANCO / ARGIA

ANDOAINGO EUSKERA, BIHOTZETIK KALERA!



BASTERON jaialdia



ABENDUAK 5 19:30

**Bete dezagun
Basteroko
auditorioa!**



ANDOAINGO
EUSKERA,
BIHOTZETIK
KALERA

Sarrerak salgai:
Elizondo taberna eta
Delgado liburudenda



Olagain Udal txistulari elkarte / Urki Dantza Taldea / Begoña Tolaretxipi /
Rebeka Gestoso & Susana Cencillo / Ramon Beraza / Lizar Makil dantza taldea /
Iñaki Eizmendi / Alberto Agirre abesbatza / Maizorri / Eneritz Jauregi /
Iratxo taldea / Mujika-Tolaretxipi familia, eta gehiago...




TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Elkarretaratzea Zumea plazan

Dozenaka lagun elkartu zen igande iluntzean, Zumea plazan, Pasaiako erailketa matxista salatzeko. Andoaingo Mugimendu Feministak egin zuen deialdia eta bertara adin guztietako herrikideak hurbildu ziren. Herritarrei, gainera, kandelak eramateko eskaera luzatu zieten. Hainbat minutuz, isiltasunean egin zuten elkarretaratzea bezperan izandako erailketa salatzeke asmoz.



AIURRI



Kaskabeltza. EGUZKI

Mus txapelketa Batzokian

Tomas Matxain eta Jose Luis Huegun dira Andoaingo Batzokiak antolatzen duen Maximimo Lasarte mus-txapelketako irabazleak. Finalean, Joxe Manuel Erkizia eta Joseba Erkizia gainditu zituzten. Baxili Aizbitarte-Ixiar Aizbitarte bikotea sailkatu zen 3. postuan eta Ivan Guirado-Imanol Arrozpide bikotea, ondorioz, 4. postuan. Antolatzailerek txapelketa osoan izandako giro ona nabarmendu dute.



BATZOKIA



AIURRI

Eguzki talde ekologistaren ohartarazpena

Erakusleihu handiak, maiz, hegaztientzat arriskutsu izaten dira. Argazkiko kaskabeltzak Martin Ugalde Kultur Parkeko eraikin baten aurka talka egin zuen. Horrelako egoerak saihesteko lan egitera deitu zuen Andoaingo Eguzki talde ekologistak, sare sozialen bitartez egindako deialdian. "Elkarlanean ziur bideratuko dugula egoera!", adierazi zuten.



BATZOKIA

Euskararen alde, Urnietan

Joan berri den asteburuan, kalera atera zen Egape Ikastolako Aballarri guraso elkarteak, euskararen aldeko aldarrikapena egiteko asmoz. San Juan plazan bildu ziren, larunbat goizean, eta kartel-margoketa egin ostean, herriko txoko guztiak bete zituzten mezu batekin: "Zein polita den zu euskaraz entzutea".



AIURRI



ABALLARRI GURASO ELKARTEA

Jostailu-bilketa, Valentziako haurrentzat

Joan den ostiralean, opari-bilketa egin zuten Etxeberri plazan, Valentziako Catarroja herriko haurrentzat. Aste honetan joango dira bertara, furgoneta batean, bildutako guztia eramatera

Erredakzioa URNIETA

Hilabete pasatxo igaro da, DANak Valentzia hankaz gora utzi zuenetik. Hala, oraindik ere oso nabaria da bertan muturreko baldintza klimatologikoez utzitako albo-kalteen arrastoa, baita Catarroja herrian ere. Horren aurrean askotariko boluntario-sareak sortu dira. Joan den ostiral arratsaldean, jostailu-bilketa egin zuten Etxeberri plazan, ekimenaren sustatzaile diren Agurtzane Calderon, Amaia Martin eta Idoia Fernandez kideek. Helburua? Jostailu horiek guztiak Catarrojara eramatea. Aste honetan egingo dute bidaiia.



Idoia Fernandez, Agurtzane Calderon eta Amaia Martin. AIURRI

Catarroja, lokatz artean

Catarrojan babes psikologikoa behar zela-eta, bertara jo zuen bere kabuz Calderonek, psikoterapeuta baita. "Shock-ean dago jendea", dio boluntarioak, "lehen-tasun handiagoa duten beste premia batzuk asetzen ahalegintzen ari dira, oraindik, buru osasunari erreparatu aurretik, Hori ere iritsiko da". Fernandez ere hasieratik dago sartuta ekimenean, nahiz eta ezin izan zuen batu lehen bidaiia horretan, osasun arazoak medio: "Gizatasun hutsa da egiten duguna".

DANaren ondoren sortutako bizilagun elkarte bat ezagutzeko aukera eduki zuen Calderonek Catarrojara egin zuen bidaiian: "Lehenengo egunetik, lan handia egin dute. Jaten eman diete kaltetutako herri-tarrei zein boluntarioei, osasun-langileen garraioan aritu dira..." Calderonek azaldu bezala, Catarroja da DANak "gehien" kaltetu duen herrietako bat: "Oso gaizki daude, laguntza handia behar dute".

Bertara egindako bigarren bidaiaren ondoren, ekimen bat martxan jartzeko ideia izan zuten, beste boluntario batzuekin batera: "Irribarre bat, jos-

tailu solidario bat". Haurren beharrei errapartzeko helburuarekin, terapeuten talde batean bota zuten proposamena: "Lo giteko arazoak dituzte haurrek", aipatu du Calderonek "baita gernu-galeraren sindromea ere".

Herritarrek, abandonatuta

"Abandonatuta". Horrela sentitzen dira, bi kideek ikusi dutenez, Catarrojako herritarrek, jada, aste batzuk igaro diren honetan, Calderonen esanetan: "Unerik gogorrena boluntarioak etortzeari uzten diotenean iritsiko dela diote valentziarrek". Hala, hondamenaren aurrean, administrazio publikoaren partetik erantzukizun falta egon dela uste dute biek ala biek: "Udalak ez dira zentzuz eta logikaz ari. Zaharren egoitzako sukaldearen ordez, antzokia garbitzea lehenesten ari dira".

**BI ASTE BARRU,
ALTZARIEN BILKETA
EGIN NAHI DUTE
URNIETAN,
CATARROJARAKO**

Bilketa solidarioak

Orotara, lau bilketa-puntu izan ditu beren ekimenak: Garbera merkatal zentroa, Tolosa, Mutriku eta Urnieta. Era berean, joan den igandean txokolatada solidarioa egin zuten, Oreretako Pontika auzoko elkarteko kideen laguntzaz. Horrela, aurreikusitakoa baino babes handiagoa jaso zuen Etxeberrin egindako hitzorduak: puzzleak, jostailu txikiak, baloiak, panpinak... "Horietako asko oso baldintza onetan eman dizkigute", adierazi zuen Calderonek, "orain, kutxarrik ez duten horiek atontzea falta zaigu, eraman aurretik".

Beraiek eramango dute aste honetan guztia, alokatutako furgoneta batean. Hala, ibilgailu hori erabiliko dute "modu solidarioan", bertan egongo diren egunetan, "ez baitago ia furgonetarik".

Aurrera begira ere ekimenak egiten jarraitzeko asmoa du hirukoteak. Adibidez, bi aste barru, Urnietan, altzarien bilketa egingo dutela iragarri dute: "Dei egiten diegu herritarrei, erabiltzen ez duten hori ekartzeko".



Lizarkolako kanalean, hainbat zuhaitz alde alde erauntsita daude. AIURRI

Haizetearen eragina Lizarkolako kanalean eta Plazaola bidean

Oraindik orain, nabariak dira haizete gogorrek Andoainen utzitako zehar-kalteak

Haizete bortitza gertatu zenetik astebete igaro dela, oraindik ere nabarmena da eragina. Lizarkola kanalean eta Plazaolako bidean, esaterako, agerikoak dira kalteak. Denbora beharko da bideak eta pasabideak lehengoratzeko.

Inauste-lanak, Olazarren

Olazar aldera eta Otietara doan GI-3091 errepidearen hasierako bide zatian, zuhaitzak egoera txarrean daudela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak inauste-lanak egingo ditu osteguna bitarte.



Trentxikiko bidean, egurrezko barandak, hankaz gora. AIURRI






Aituna sagardotegiko kupelaren bueltan edateko eta solasean aritzeko aukera bikaina sortu zen. AIURRI

Gazte Eguna, Gabonetako ekinaldiaren atarian

Ehundik gora lagun elkartu zen Gazte Eguneko bazkarian eta, orduak aurrera joan ahala, handituz joan zen festazaleen kopurua. Bereziki, Lasko txarangarekin egin zuten kalejiran. Musika doinuekin, jai-giroa herrigunera zabaldu zuten

Erredakzioa URNIETA

Eguraldi goxoko egunak badira udazkenean, eta aurreko larunbatekoa horietakoa izan zen. Horrenbestez, Gazte Eguna gozagarria izan zen. Plazido Muxikan aurkitu genituen jaietako antolatzaile Peru Sanchez eta Maialen Kortajarena eta ospakizun berria Gabonetako hitzorduen atariko zela iragarri zuten. Hots, abenduaren 24an izango dela ekitaldirik. Eta hilaren 31n, nola ez, urteari amaiera emango dion lasterketa.



Maialen Kortajarena eta Peru Sanchez, Poxta Zaharreko kideak. AIURRI

Egun osoko ospakizuna



Babarrun-jatea, Gazte Eguneko menua. AIURRI

Babarrun-jana Garaian garaikoa jan behar dela eta, Poxta Zahar gazte kuadrillen elkarteak babarrun-jana antolatu zuen Plazido Muxikara hurbildu ziren guztientzat. Sagardoaz lagunduta, bapo bazkaldu zuten.



Gazte kuadrilla, bazkaltzeko zain. AIURRI

Ehun lagun, bazkarian Ospakizunean murgildu ziren dozenaka gazte, aurreko asteburuan. Eguerdian, Plazido Muxika plazan, ehun lagundik gora elkartu ziren bazkarian. Arratsaldean eta gauean jarraipena izan zuen festak.



Trikitilariak zein pandero-joleak bikain aritu ziren, eguerdian. AIURRI

Herrikoen eskutik Jai-giroa sustatzeko asmo horretan ezinbestekoak izan ziren trikitilariak eta pandero-joleak. Ezker-eskuin, zutik: Joseba Arretxe, Enara Donavera eta Jone Izagirre. Behean, Maialen Izagirre eta Maider Iriberrri.



Makina bat gazte gerturatu zen Urnietako Gaztetxea ezagutzera. AIURRI

Gaztetxe baten premia aldarrikatu zuten

Iluntzean, dozenaka lagun abiatu zen Idiazabal kaletik Udal kiroldegia- ren goikaldeko aparkalekurantz. Bertan dagoen etxola-sortan sartu ziren, Gaztetxea herriari aurkezteko asmoz. Gutxi iraun zuen, ordea. Ordu batzuk igarota eremua berriro itxi egin zuten



Tolosaldeko gazteez osatutako Lasko txarangak musikatu zuen iluntzea herrian. AIURRI



Hainbat pankarta eskegi zituzten eraikinaren kanpoaldean. AIURRI

"Herri bat, gaztetxe bat"

Larunbat arratsaldean, Lasko txarangaren kalejiran, Urnietako hainbat gazte idatzia banatzen hasi ziren. Gutuna zen, zehazki esanda, aurkezpen gutuna. Bertan Gaztetxearen premia aldarrikatzen zuten: "Herriko gazteak urteak goaz espazio autogestionatu bat aldarrikatzen. Urnietako eragile zein banakakok bertan libreki antolatzeko tokia eduki dezagun. Hainbat saiakera

egin dira azken urteetan, eta arrazoi desberdinak medio ataka berdinean jarraitu dugu: tokirik ez eta Gaztetxearen hortzimuga geroz eta urrutiago ikusten da".



Sistematikiko kritika zuzena egiten zuten gutun berean: "Gutziz asimilatu dugu edozer ekintza antolatzeko garaian Udaletik pasa behar dugula, hauen azpijokoak, zentsura, presioa eta abar pairatuz, beraien menpe geratzen delarik herri honetan egin daitekeena eta egin ez daitekeena erabakitzea. Urteak badoaz

eta herri hau geroz eta hilago dago, onartezinak diren gauzak normalizat hartuz eta gazteak Urnietari bizia emateko ahaleginetan amore emanez, gutxi batzuen mesedetan. Egoera honi amaiera emateko momentua dela uste dugu. Biltzeko, mota ezberdinetako ekintzak aurrera eramateko, elkar ezagutzeko, ideia berriak garatzeko... toki bat behar dugu. Horregatik, Urnietako Gaztetxea okupatzea erabaki dugu! Bertan parte hartzera bultzatzen zaituztegu, denon artean mantenduko dugulako Urnieta bizirik!".

Igandean, bigarren gutuna

Urnietako Kiroldegiaren goikaldeko aparkalekuan aurki daitekeen instaluntzaren okupazioak gutxi iraun zuen. Ordu batzuk, besterik ez. Igandean asanblada egitekoak ziren bertan baina Udaltzaingoa eta Ertzaintza atean zain zituzten. Azalpen kritikoa egin zuten igandeko adierazpenean: "Atzo Urnietako Gaztetxea okupatu genuen, baina gaur goizean Urnietako Udalak Gaztetxeko zerrailak aldatu ditu, okupatu berri dugun gunea erabiltzea galaraziz. Urnietako Udalaren jarrera oldarkorra irmoki salatu nahi dugu. Onartezina iruditzen zaigu gutziz zilegia den ekintza baten aurrean horrela jazartzea, gure arteko antolakuntza deuseztatu nahian eta erabiltzen ez den gunea bat berriz ere hutsik egotera kondentatuz. Honekin ez gaituzte kikilduko eta ez digute gaztetxe batengatik borrokatzeko gogoak kenduko. Urnietako gazteriari asanbladan parte hartzeko deia egiten diogu, denon artean bitutako dugulako Urnieta! Adi egon hurrengo deialdiatar!".

Aiurri astekariak Urnietako Udal Gobernu taldearen ikuspegia jaso nahi izan du baina adierazpenik ez da iritsi, erredakzioa ixterakoan. Antza, ordezkaritza duten alderdien arteko bilera egitear da hurrengo egunetan.

Jon Ander Ubeda URNIETA

Durangoko Azoka begi-bistan dugu eta bertan aurkeztuko dugu "Kosmetikoak sendabelarrekin" ARGIA-rekin argitaratzen duzun hirugarren liburua. Liburugintzan dagoeneko eskarmentu handia pilatzen ari zara. Liburua eskuetan izan zenuenean, zer sentitu zenuen?

Nahasketa bat. Lehenengo, liberazio handi bat. Hau ez da nik bakarrik egindako zerbait. Argia lantalde bat da, eta liburuaren ekoizpenean hainbat pertsonak egin dugu lan. Nik beti esan ohi dut letrak oso lehorrak eta soilak direla. Bada, norbaitek eder egiten badu liburua, hori Ibai Arrieta argazkilaria da, azala eta maketazioa egin dituen Maitane Gartzandia da. Inor ez da editoreekin akordatzen, baina testu hori horrela iristeko eta irakurleak ondo ulertzeko, Estitxu Eizagirrek egin du lan. Inprentan egiten den lana ere garrantzitsua da, lan hori produktu fisiko bihurtzen dutelako. Eskarmentuari dagokionez, tira, liburu bakoitzak bere berezitasunak eta ezaugarriak ditu. Denetatik ikasten da. Hortaz, luzea da "hau egitea gustatu litzaiguke" hasierako ideia hura mahaigaineratu genuenetik, eskuetan edukitzera bitarteko epea. Badut lorpenaren sententzia, baina, era berean, "gainetik kendu dezaket" nolabaiteko ideia hori ere bai, izan ere, buru-belarri, bestelako gairik gabe aritu naiz hilabetetan, hori prestatzen.

Durangoko Azokan izango zarete, urtero legez. Kontsulta asko egiten al dizkizu jendeak, egun horietan?

Salmenta, ospakizuna... Emozio nahasketa handia da Durangoko Azoka. Eskerrak ematera gerturaten zaizu jendea, beste batzuk lehen aldiz ezagutzen zaituzte... Azken urteetan, dibulgazio-lanetan aritu gara, "Bizi-baratzea" proiektuarekin, eta oso harrera ona izan du. Horren gose zen jendea eta, formatuan, asmatu dugulakoan gaude. Oso ederra da hori. Liburua bera ez da, gainera, ipuingintza. Egiteko zerbait da, eta hor zalantzak sortzen dira, edukian. Durangoko Azokakoak oso egun biziak dira, eta eguneroko egoten gara bertan. Aurten, larunbat arratsaldean, hitzaldia izango dugu, 17:00etan, Landa-kogunean. Hau guztia esanda, esker on handia sentitzen duzun tokia da Durangoko Azoka.

"Transmisio-lana egitea dagokigu orain"

GARBIÑE LARREA "KOSMETIKOAK SENDABELAREKIN" LIBURUAREN EGILEA

Hilabete pasatxoko ibilbidearekin ailegatuko da Durangoko Azokara urnietarrak Argiarekin batera argitaratutako azken liburua



Garbiñe Larrea, liburua eskuetan duela. DANI BLANCO, ARGIA.

Azokan, Jakoba Errekondorekin batera, bisitariekin hartu-eman handia izaten duzue. Salmenta polita egitera iritsi zara aurrekoetan. Arian-arian, azokako erreferentziatokia bilakatu da zuen estanda.

Guk estand deigarria ipintzen dugu, elementu begetalak jartzen dizkiogu. Urtetan, ibilbidea egin du Jakobak eta egunak dituen ordu guztietan egoten da bertan bera. Gustuko du jendeak, eta bera eskura egoten da. Lehenengo urtean, ez neukan oso argi zer egin behar zen Durangon, ezjakina nintzen. Berak oso garbi esan zidan: "Begira, nik hau egiten dut, nahi baldin baduzu, lagunduko dizut". Egia da, bere aldamenean ipinita, oso erraza izan zela. Bidea erakusten dit. Beste idazle batzuk ere etorri dira: Josebe Blanco, esate baterako... Transmisio-lan bat egiteko ere bagaude, dibulgazio-lana egiteko helburua dugu.

"Bost sendabelarrekin egin dezakegu kosmetika on bat", adierazi zenuen aurkezpen-ekitaldian. Uste baino errazago eta eskuragarriago dugulako akaso?

Hain justu, horixe da. Sendabelar asko behar ditugula uste da, atzerrikik ekarri behar ditugula... Badaukagu gure artean oso ugaria eta ezaguna dena gutxieste-ko joera. Berrizalea da gizakia, eta beti nahi izaten ditu elementu berriak. Nola bururatuko zaigu kalendula edo labanda direnik sekulako sendabelarrak? Eta badira! Eta gero landare basati asko ditugu: plantila belarra, asuna... Sekulako sendabelarrak dira eta azalerako eta hilerako propietate handiak dituzte. Aldiz, sektore honek oso berezkoa du aktibo berriak eta kanpotik ekarritako landareen propietateak nabarmentzeko joera... Produktu berriak asmatzen dituzte horrela eta, nire ustez, ez dugu horren urrutira joan beharrik, askotan, azal batek ez baitu askoz gehiago behar. Etekina atera ahal badiezu lauzpabost sendabelarrei,

"BADAUKAGU GURE ARTEAN UGARIA ETA EZAGUNA DENA GUTXIESTEKO JOERA"

eta horrekin kosmetika seguru bat eta eraginkorra egiteko gai bazara, ez duzu askoz gehiago behar.

Ustez, eskura dugunaren orde, industria osoa sortu da kosmetikaren kontura. Eta horren atzetik etorri dira hainbat eta hainbat arazo, gehiegizko erabilera dela eta.

Gehiegizkoagatik baino, eguneroko erabilera xumeagatik esango nuke. Produktu gutxi erabiltzen dituena ere ez da jabetzen horrekin. Hori izan da liburua idazteko motibazioetako bat: kutsaduraren gaiak asko kezkatzen nau. Lurrarenak, jakina: estolderian behera, egunero ari gara kutsatutako ur kopuru handia sortzen denok, eta, aldi berean, geure gorputza kutsatzen dugu, eta Nazioarteko Endokrinologia Elkarteak aurten txosten bat atera du esanez, geure barruko sistema hormonal nola *hackeatz*en duen, eta nola ari den osasun arazo larriak sortzen epe laburrean zein ertain-luzean. Horren aurrean ezezagutza da nagusi. Urte batzuk badira, Onintza Iru-retak egindako elkarriketa batean, aipatzen nuena amianto berria izango dela. Amiantoari buruz hasi zirenean, barre egin zitzairen, eta, orain, iritsi dira sententziak eta ikusi dugu zein inpaktu duen horrek. Bada, honek ere osasun hormonalean, ugalkortasunean inpaktu handia du, eta geure gorputzetan berandu ikusiko dugu, baina, nerabeen artean, nabariagoa izango da,



Sasoi bakoitzari egokitutako produktuak eta sendabelarrak ageri dira liburuan. IBAI ARRIETA

esposizioa askoz handiagoa delako. Eredu hori kritikatzeko izan dut helburu eta hor datuak ematen ditut, baina alternatiba ere eskaini beharra zegoen.

Azken belaundalietan, landa-eremutik edo baserritik etorritako jakintza hori galtzen ari da. Eta, esan gabe doa, liburuetan, transmisioari heldu nahi diozuela.

Lan honen ardatzetako da, bai. Nik neuk ere ideia hori nuen hasieran, jakintzaren galerarena. Baina, esango nizuke, Euskal Herrian barrena kilometro asko egin eta gero, ez daukadala irudipen hori horren argi, gehiago dela transmisio falta: beste belaundaldi bat etorri da eta hori ez du hartu, eta batez ere ez du praktikan ipini. Aitzitik, hitzal-

dietan-eta, sekulako jakintza duen jendea gerturatzeko zait, baita gogotsu dagoena ere, egin duen hori norbaiti emateko. Hartzaileak falta dira, eta ikusi dugu badela tristura sentitzen duen eta ikasteko gogoz den jenderik, bere etxean egiten zen hori galdu delako. Transmisio-lana egitea dagokigu orain, ondare imateriala da, ez da inorena.

“Kosmetikoak sendabelarrekin” liburua salgai izango da Durango Azokan, baita Argiako webgunean edota liburudendetan. Urnietan? Azoka bada salmenta-puntu bat eta eskura dago Argiako webgunean edota liburudendetan. Andoingoetan bai eta Urnietaren kasuan, nik dakidala, ez. Hernaniko Elkar liburu-dendan, bai.



Gertuko senbelarekin ere bada produktuak egiterik. IBAI ARRIETA



Maiane Gartzandiaren ilustrazioak atontzen du azala. MAITANE GARTZIANDIA

ZOZKETA

XIBEROAKO
IKASTOLEN ALDE

ARPAILA

Aiurriko
harpidedun
izateak
saria dakar



**Harpidedunen artean
SASKIA ZOZKATUKO DUGU.**

Parte hartzeko modua:
Idatzi “Xiberoa”, zure izen-abizenak eta bidali:
* Whatsapp: 619 163 537
* E-posta: diseinua@aiurri.eus

Saskia

Zuberoako euskararen alde

SASKIA IRABAZI NAHI?

Zozketako irabazlearen berri, datorren Aiurri astekean emango dugu.

ZUBEROAKO IKASTOLEN ALDE

Euskara hauspotzea, helburu Transmisioa Zuberoan eteten ari den heinean, ikastolek bermatzen dute hori. Gauzak horrela, ikastolei laguntzeko saskiak erosteko kanpaina abiarazi dute. Jakien artean dira xerriki pateak, ahate gibel berrosatua, bixkotx artisaua, gazta, lukainka...

Informazioa: ikaskoli.eus.



Mikel Muro Kabe bildumako hainbat libururekin. AIURRI

“Durangoko Azoka erakusleiho handia da mangarentzat”

MIKEL MURO HARRIET EDICIONES ARGITALETXEKO MAKETAGILEA

Euskara eta manga uztartzen ditu Harriet Ediciones argitaletxeiko Kabe bildumak. Sei istorio dituzte argitaratuta, eta, aste honetan, Durangoko Azokan izango dira

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Nerabezaroan izan zuen lehen aldiz Urnietako Mikel Murok manga bat eskuen artean. Eta, harrezkero, ezin begirada bineztatetik kendu. Harriet Ediciones argitaletxeiko Kabe bildumaren atea ireki dizkio Aiurriri, Euskal Herrian mangazaletasunak duen egoeraren irakurketa egiteko: mangan antzera, atzekoz

aurrera, eskuinetik ezkerreara eta bertikalean, jakina.

Amona-biloba baten arteko eztabaida bati tiraka otu omen zitzaizuen manga euskaraz sortzeko ideia.

Orain dela bederatzita urte jaio zen nire aitaren eskutik Harriet Ediciones komikien eta eleberrigrafoen argitaletxea. Lehena, zinemagintzan ibilia ginen biak, baina argitaletxe, ekoizpen

eta diseinu ikasketak ditud, baita publizitate grafikoak ere. Komiki guztietan dago nire eskua sartuta, maketagile nagusia bainaiz. Aspalditik esana nion aitari manga euskaraz argitaratzearena, baina pandemia baino pare bat urte lehenago-edo hartu genuen hortan hasteko erabakia: Durangoko Azokan, amona-biloba batzuen arteko

elkarrizketa batekin. Bilobak manga bat nahi zuen eta amonak erositako hori euskaraz izatea. Komiki bat hartu zion amonak, eta bilobak, eskuetan izan orduko, lurrera bota zuen, umore txarrez. Agian, manga euskaraz argitaratzea ideia ona izan zitekeela irudikatzen lagundu zion aitari egoera hark. Pandemiaren aurretik jarri ginen martxan, baina, koronabirusa zabaldu bezala, hermetikoki itxi zen Japonia. Ezin genuen ezer egin. Ondorioz, atzeratu egin behar izan genuen asmoa, 2022an, lehen manga argitaratu genuen arte: "Cube Arts". Hernanikomik azokan egin genuen debuta orain bi urte, argitaratua geneukan manga bakarrarekin. Ondo joan zen Hernanikoa, baina Durangoko Azoka... Ikaragarria izan zen. Guzti guztia saldu genuen. Gerora, egia da pixka bat lasaitu egin dela egoera, baina, adibidez, laugarren ediziora doa, jada, "Cube Arts". Ditugun beste argitalpenen artean, batzuek beste batzuek baino arrakasta handiagoa dute, baina denek hartu dute bere martxa.

Lehenengotarikoak zarete manga euskaraz argitaratzen. Erreferente faltaren aurrean, dena duzue aurretik asmatzeko. Zein zailtasun dakartza horrek? Eta zein aukera?

Guk "Cube Arts" atera baino bi aste lehenago kaleratu zuen Bartzelonako Ooso argitaletxeak euskarazko lehen manga, "Gorputza Krisian". Teknikoki hitz eginda, beraiena ez litzateke manga izango, ez delako japoniarra, Thaiandiakoa baizik. Baina, beno, hau ez da inondik inora lasterketa bat eta zero axola zait.

Zorte txarra izan dute, Bartzelonakoak dira, gu baino argitaletxe txikiagoa eta eurak arduratzen dira banaketa egiteaz. Gure kasuan, Elkarrek eta SD enpresak egiten dute. Horrez gain, azoketan egoteko aukera daukagu guk: Getxoko Komiki Azoka, Hernanikomik, Durangoko Azoka, Sarako Ikusi Mikusi, Zornotzako Mangamore, Ziburuko Euskal Liburu eta Disko Azoka... Halako izena eta arrakasta lortu dugu. Euskaraz argitaratzeari utzi diote beraiek. Pena da, guretzat ez baita hori helburua.

Zure galderari erantzunez, abantailak? Ez daukagula inol alderaketan erortzeko. Zailtasunak? Euskal Herria ulertzeko

arazoa daukate japoniarrek, behar izaten dugu, hizkuntza bat baino gehiago daudela, gurea euskara dela, beste hartzaile mota bat daukagula...

Zenbat argitalpen egin dituzue orain arte?

Sei istorio argitaratu ditugu, hemezortzi aletan aterata: "Cube Arts" (hiru ale), "Heroines Game" (hiru ale), "Girls' Last Tour" (bost ale), "Dinosan" (lau ale), "Otaku bat Jainko Lanetan" (bi ale) eta "Change the World" (ale bakarra). Halere, gehiago ditugu inprimatzeke, otsailari begira.

Adin-tarteari dagokionez, zein da zuen argitaletxearen publikoa?

Gure hartzaile zuzena 12-16 urteren bueltako haurrak dira, istorio gehienak adin-tarte horri zuzenduta argitaratu ditugulako. Dena dela, gurasoak daude arteko, haiek baitira liburu horien erosleak. Aurreko galderarekin lotuta, baditugu zenbait arazo: indarkeriaren aurrean jarrera lausoagoa daukate japoniarrek. Horren harira, inoiz izan dugu komeriaren bat edo beste, arrazoiarekin, noski. Horrez gain, heriotzarekiko eta sexu-praktikekiko ere oso ideia arraroa daukate, oso iluna, hemengo ikuspuntutik begiratuta. Bitxikeria moduan, hamar urtetik beherakoentzat ez dago mangarik. Ez dago ezer Japonian. Bertako umeez 10-12 urte bitarte izan arte ez baitute irakurtzen ikasten, oso zaila baita beren hizkuntza. Hiru grafia ezberdin dituzte: "hiragana", "katakana" eta "kanji", eta mila bat ikur ditu horietako bakoitzak. Bada, guztia ikasi ahal izateko urte dezente ematen dituzte.

Neska ala mutil, emakume ala gizon. Bereizketa horren nahiz adinaren arabera banatzen dituzte manga-generoak. Eta guk ez dugu halako zatiketarik egiten. *Komodo* du izena haurrentzat argitaratzen den mangak ("Doraimon"); *shonen*, adibidez, mutil gazteei zuzenduta dago eta bidaiak, borrokak nahiz abenturak dira nagusi ("Dragoi bola", "Naruto", "One Piece"); aldiz, *shojo* neska gazteentzako argitaratzen dute eta bikote-harremen heterosexuak zein erromantizismoa izan ohi dituzte hizpide ("Marmalade boy", "Sailor moon"); gai sakonak lantzen dituzte gizon helduei begirako *seinen* generoak ("Akira", "Ghost in

the Shell”), baita emakume helduentzat eginiko *josei* generoak ere, tartean, gai sozialak, harremanak, lan mundua... (“Chihayafuru”, “Nana”). LGTBIQ+ kolektiboari zuzenduriko generoa da *yuri*, eta, batez ere, hasieran lagunak diren bi nesken arteko erlazio erromantikoak jorratzen dira mangetan. Gauza bera gertatzen da *yaoi* generoarekin, bi mutilen arteko harreman erromantikoan oinarritzen baita, nagusiki. Guztien kasuan cis erlazioak izan ohi dira eta ez da iristen, baina porno kutsua dute, oso sexualizatuak dira.

Nahiz eta guk eskaintza antzagoa eduki nahi izan, Japonian *shonen* moduan saltzen direnak dira nagusi gure argitalpenen artean. 12-15 urte bitartekoei zuzenduta dago, baina adin-tarte horrentzat egokiak ez diren edukiak ageri ohi dira manga askotan. Maiz, sinopsia eta lehen kapitulua ematen digute irakurri eta aukeraketa egiteko. Bada, hasieran itxura ona duen lana okertu egin daiteke askotan, eta buruhauste handiak ematen dizkigu horrek. Hortaz, nerabeentzat aproposa da? Irakurketa-maila, bai, ulertteraza bezain dibertigarria da, baina nik nahiago izaten diet gurasoei alde aurretik abisatu badituztela zenbait pasarte desegoki samarrak.

Zein irizpide erabilia erabakitzen dituzue euskaratuko dituzuen lanak? Aita gidoilaria izan denez, istorioei arreta berezia jartzen zaie Harriet Ediciones argitaletxean. Nahiago dugu marrazki narratsa duen istorio ona, marrazki txukuna duen istorio txarra baino. Mangarekin, gauza bera. Sinopsia irakurtzen dugu, baita lehen kapitulua ere. Astuna irudituz gero, atzera botatzen dugu. Bazueta, ez dituzte ingelesez edo gaztelaniaz izaten istorioak. Horrelako kasuetan, internetera jo ohi dut. Marrazkiak ere pisua du, gure eskaintzan oso ilustrazio onak daudela iruditzen zait.

Japonian errotutako ilustrazioak eta istorioak ekarri dituzue euskarara. Kultura arteko jauzian oztoporik izaten al duzue?

Batzuk bai. Arlo teknikoan, demagun, European, onomatopeiak soinuak dira. Japonian, berriz, soinuak eta ekintzak. Pertsonaia bat aulkitik jaikiz geroz, “altxa” jartzen du onomatopeia gisa. Lan handia da hori guztia maketatzea. Bestalde, bertikala da beren idazkera. Eskuinetik ezkerrean ida-



Mangaren eskaintza zabalduz doa, urtez urte. AIURRI

zia. Euskaraz, ordea, hizkuntza eranskaria izanik, hamar silabako hitzak ere baditugu. Buntailoa oso bertikala da eta hitzak oso horizontalak (barreak). Ahal dudan guztietan saihesten ahal egintzen naiz, baina, tarteka, sartu izan dut bi mozketak dituen hitzen bat edo beste. Orriak ere alderantziz ipini behar ditugu, gurearekin alderatuta, atzekoz aurrerako irakurketa egiten delako mangan. Buruhauste handia izan zen lehen aldian, baina, egun, neurria hartuta diogu.

Negoziaketari begira ere baditugu talkak, hortan izaten ditugu arazo handienak, oso ezberdinak baititugu ikuspuntua eta helburuak. Bikaintasuna bilatzen dute, ehuneko ehunean. Perfekto ez baldin badago, atzera botatzen dizute dena. Adibide bat jartze aldera, zertxobait argalagoa da “Girls’ Last Tour” manga, 160 bat orrialdekoa. Inprentakoek kanpoko estalkia handia gelditzen zitzaiola esan ziguten eta milimetro bat kentzeko. Milimetro bat. Kendu eta eredu berria bidali behar izan genien. Bada, argitaletxetik erantzun ziguten galdetuz ea zergatik kendu genion milimetro hori. Xehetasun txiki-kienetan dute arreta jarrita. Era berean, “Dinosauroi” mangarekin ere gustuko dudana egoera berezia bizi izan genuen. Dinosauroei buruzkoa da manga. Bada, mangaren egileen lan-taldean, paleontologoa dute, aholkulari-lanetan. “Dinosauroi” guztia bidali genien maketatuta. Ez zigun argitaletxeak erantzun, paleontologoak baizik: “Euskaraz ikasten hasi naiz hau irakurtzeko eta ez dakit zergatik jartzen

duzuen aditza modu horretara”. Gure itzultzailea sartu behar izan zen, orduan, elkarrizketan, azalpen argigarriak emanez. Euskara bere kabuz ikasten hasi zen!

Artxiboen bidalketan ere arazoak eduki izan ditugu. Gaizki bidali izan dizkigute, ordena aldatuta... Ez dut ulertzen zergatik diren horren zorrotzak eta horren nahasiak aldi berean. Gaur egun, normalean, edukiak internetez bidali ohi dizkiogu elkarri. “Cube Arts” mangakoek, ezetz, disko konpaktu batean bidaliko zizkigutela artxiboak. Japoniatik hona, bi hilabete-edo igaroko dira CD-a iristerako? Iker Alvarez gure itzultzaileari bidali zioten azkenean, han bizi baita. Berak digitalizatu eta bidali zigun edukia. Diziiplina zurruna eta kaotikoa dute. Beste denbora-martxa batzuetan mugitzen dira.

Nola egiten diozue aurre elkarrizketa eta esamolde japoniarrak euskarara egokitzeko eronkari?

Ikerren lana da hori, gehienbat. Hain zuzen ere, argitaratzeko dugun manga berriaren izenburua hitz-joko bat da, japonieraz. Hori mantendu nahi genuen, baina ariketa zaila zen euskaratzea. Interpretatu egin beharra dago eta, hiruok elkartu ostean, aita, Iker eta ni neu, lortu dugu: “Buztan eta buzti”. Zortea dugu, Ikerrek hamar urte daramatzalako Japonian bizitzen eta bertakoa du bikotekidea. Zentzu horretan, erraztasuna du hitz-jokoekin.

Etxeko literaturan gertatu den bezala, diskurtso eta testuinguru berriak sortu dira manga liburuen istorioetan?

Uf... Orokorrean, ez. Tradizio handikoak dira japoniarrak eta betidanik gauzak modu batera egin badira, horrela egiten jarraitzeko ohitura dute gehienek. Oso gutxi ausartzen dira hortik ateratzen. “One Piece”-ren zale porrokatua naiz ni eta, hain justu, azken sagan, bi pertsona trans sartu zituen egileak, naturaltasunez, gainera. Oso pertsonaia interesgarriak dira eta pisua dute kontaktetan.

Osasuntsu al dago mangazaletasuna Euskal Herrian?

Bai, eta aspalditik, gainera. Lehen, ez nuen ulertzen zergatik ez zegoen euskaraz manga irakurtzerik. Ama argentinarra dut eta aitak ez daki euskaraz, baina Harriet Ediciones argitaletxea sortu zenean, argi genuen euskarari pisua eman nahi geniola: komiki guztiak ditugu euskaraz, ez, ordea, gaztelaniaz. Ikusi dugu komikigintzan eta mangan, kontsumitzaile euskaldun gehiago ditugula erdaldunak baino. Euskal Herria Frantziatik gertu egotea izan daiteke motiboa, bertan oso zaleak baitira.

Irakurzaletasuna sustatzeko bide polita izan daiteke manga.

Eta euskaraz trebatzeko aukera ere bai. Euskara ikasten ari direnentzat lagungarria da, testu gutxi du, ulertteraza da eta hizkuntzan sakontzeko erreminta polita da. Telebistako edukiak, liburuak, komikiak, mangak... Guztietan eduki behar dugu eskaintza euskaraz, hizkuntza horretan jarduteko aukera eta espazio gehiago izan ditzagun. Duela bi hamarkada, mordoxka bat marrazki bizidun genituen euskal telebistan, euskaraz.

Orain, bigarren edo hirugarren mailako kate batean daude eta ez ditu ia inork ikusten, mundu guztia interneten baitago eta plataforma digitaletan euskararen presentzia murrizta da, ikusi dudanez. Eremu akademikotik harago ikusi behar dugu euskarara, eta ez, soilik, literaturan.

Durangoko Azoka ate-joka den honetan, izango al dute txokoren bat gordeta zuen argitalpenek?

Komiki argitaletxe guztiak kale berean izango gara Durangoko Azokan, egunero, abenduaren 5etik 8ra, hain justu ere. Azokarrik inportanteena da Durangokoa argitaletxearentzat, bertan egiten baitugu dirua. Durangoko Azoka erakusleiko handia da mangarentzat, bai eta komikiarentzat ere. Orain bi urte halako sold

out-a egin genuen “Cube Arts” mangarekin. Ia, Eusko Jaurlaritzaren bidez, babeslea izan genuen: “Manga euskaraz” eta 500 manga oparitu genituen. Hainbat azokatan izan naiz Barcelona edo Valentzia bezalako hirietan, baina ez dut sekula Durangoko Azokakoa bezalakorik ikusi. Izugarria da jasotzen duen harrera. Eta hori da euskal kultura.

Kabek argitaratutako zein manga gomendatuko zenioke zuenera gerturaten denari?

“Zein istorio mota dituzu gustuko?”, erantzungo nuke nik. Gure eskaintzan ditugun sei istorioak kontatu ohi dizkiet apur bat zailantzi daudenei: misteriozkoak, beldurrezkoak, lasaiak, abenturazkoak... Umeentzat, adibidez, oso aproposa da “Otaku bat Jainko Lanetan 1” antropologia eta historia irakasten dituelako. “Dinosauroi” ere oso atsegina da: albaiari baten istorioa da, dinosauroak zaintzen. Eduki teorikoa du eta perfektuak dira marrazkiak.

Dena dela, guztien artetan gustuko den istorioa da aholkatuko nukeena, “Girl’s last tour”. Bi neskatu dira, guda ondorengo testuinguru batean biziraute: buru azkarrekoa da bata, eta bestea oso fisikoa. Galdera filosofikoa izaten dituzte bidean, tanketa baten gainean daudela: “Zer da Jainkoa? Zer ez? Hau zergatik? Eta beste hau?”. Oso lasai da, oso polita, egunerokotasunaz mintzo da eta bien arteko harremanean oinarritzen da kontakizuna. Oso maitekorrak dira biak al biak eta ez du testu luzerik, oso irakurteraza da. Nahiz eta marrazkia ez izan oso fina (apropos egina dago) oso estilo atsegina du, marra askorekin, izugarriak dira paisaiak. Oso filosofikoa da eta konturatzeko zara oraindik ez dugula zenbait galdera erantzuten asmatu.

Artista askok lotu ohi dute beren sorkuntza-agenda Durangoko Azokaren. Zuek ere ba al daukazue zerbait berria eskuen artean?

Komiki berriekin goaz, bai. Mangari dagokionez, bi ditugu maketatuta, baina ez dira Durangoko Azokarako izango, aurreagorako baizik, otsailerako-edo: “Change the World”-en bigarren alea eta “Girl’s last tour”-en seigarren eta azken alea. Manga berri bat ere aterako dugu, aurrerik, “Buztan eta buzti”; *shojo* bat da.

Bertso-saioa, Sant Krutz elkartean

Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian, ohiturazko bertso-saioa bilakatu da Santa Krutz Peña elkartean egiten den bertso afaria. Protagonistak ez dira gehiegitxo aldatzen aurten ere Xebastian Lizaso eta Nerea Elustondo aritu baitira kantuan

Xabier Lasa ANDOAIN

Elustondo eta Lizaso ofizio eta handiko sortzaileak dira biak eta inork gairik jarri beharrik ez zuten izan ia bi orduko saioa osatzeko, umorea nagusi izanik. Hainbat gairen artean, antolaketan buru belarri ibili ohi diren Antonio Goia eta Garbiñe Agirre bazkideak izan zituzten hizpide bi bertsolariak. Hainbat bertso ikusgai eta entzungai daude Aiurri.eus webgunean.



Antonio Goia, Xebastian Lizaso, Nerea Elustondok eta Garbiñe Agirre. AIURRI

Sustatzaileari bertsoan

Xebastian Lizaso:

Utzi Antonio ta begiratu zure ezker ingurura. Gaurko zita honek Garbiñekin e(re) badauka bere lotura. Hau juntan zela bertsoa ekarri lenago ez zegon lekura. Gutxi batzuren kapritxo zena, ohitura on bihurtu da.

Xebastian Lizaso:

Hainbeste gauza hitz laburretan baneki nola azaldu, aukera zuen Garbiñek eta alperrik etzuen galdu. Lehenbizikoa bera izan zen ta pixkanaka ugaldtu. Zeuretzat atia iriki zendun ta besteentzat zabaldu.

Xebastian Lizaso:

Bitarte hortan andrazko gabe zen Santakruz elkartea. Ta pentsatzeko hartu omen zuten hor bi urteko tartea. Kostata baina bai erabaki baiezkoa esatea, ta berriz ixten zail izaten da behin zabalitzen den atea.

Nerea Elustondo:

Bertsolaritzak premizko ditu gisa hontako guneak. Ta honi esker hemen pasatu direnak, a ze uneak! zure ekarpenak ez dira izan eskasak edo xumeak, zuri eskerrak daude elkartean bertso ta emakumeak.

Nerea Elustondo:

Ba bai, nolabait ere zu harro egon zaitez zure lanaz. Denok dakigu hemen pixka bat pasatu zen iraganaz. Bi urte zain izan zintuzten hemen onartzeko planaz, gero damutu egingo ziren lehenago onartu ez izanaz.

Nerea Elustondo:

Ba bai atea zabaldu zuten. Ta handik ezin da irten. Baina ez dakit hemen guztiek guzti-guztia dakiten. Feminismoan kontutan oso ohituta gaude jakiten. Bi pauso egin aurrera eta hiru atzera egiten.



Afari ederra prestatu zuen sukaldari taldea. AIURRI



Erakusketa zabalik dago Bastero Kulturagunean. AIURRI

Mikel Laboaren unibertso sinboliko anitza

Kantari handiari eskainitako erakusketa zabalik dago Bastero Kulturagunean, ohiko ordutegian

Xabier Lasa ANDOAIN

"Ni ez naiz Mikel Laboa" komikia-liburua izan du inspirazio-iturri erakusketak. Datorren urtarrilaren 31 bitarte egongo da zabalik. Marta Lasa kultura zinegotziak hartu zuen hitza, eta erakusketa EHUKo Mikel Laboa Katedrak eskuartean dituen proiektuen artean kokatu behar dela jakinarazi ostean, bertan parte hartze zuzena izan duten Miren Koro Campos komisarioa eta Joseba Larratxe komikilariak aurkeztu zituen

"Ni ez naiz Mikel Laboa" komikirako hiru artista bildu ziren: Harkaitz Cano eta Unai Iturriaga gidoilariak, eta Joseba Larratxe ilustratzailea.

Basterora hurbildu zen Larratxek aitortu zuenez, bi arrazoien-egatik dago pozik egitasmoarekin. Arrazoi oso pertsonala, lehenbiziko eta behin, Laboak txikitatik utzi izan dion arrasto sa-

konagatik. "Konstante bat izan da bere figura niretzat, eta Laboa zalea naiz. Esan dezaket Laboa bidelagun izan dudala nire bizitzako zati handi batean".

Unai Iturriaga eta Harkaitz Canorekin elkarlanean jardun ahal izatea, bizitzan egin dioten oparirik gozonenetakoa izan zela gehitu zuen: "Hirurok ere, hain maitatua den Laboaren figurari justizia egiten saiatu ginen biziki. Ohiko biografia izan beharrean, bere unibertso musikala islatu nahi izan genuen".

Miren Koro Campos eta Mauro Peñalba dira erakusketako komisarioak. Hitza hartu zuten Basteron: "Mikel Laboa... izan liteke konstelazio, izan gabe izar... erakusketa Laboari egiten zaio omenalditzat hartu behar da, baina gorazarre hori Marisol Bastida bere emazteari ere luzatu behar zaio, beti ondoan eduki zuen emakume horri".



andoaINDARRA
euskaraz



Manuel Larramendi Kultur Bazkuneke hainbat kide, Andoaingo Espigoio edo Kaimuturrean, abenduaren 5aren aurretik ateratako argazkian. LARRAMENDI BAZKUNA

Euskara ardatz duen jaialdia

Ostegun honetan, abenduak 5, euskaltzaleen jaialdia iragarri du Manuel Larramendi Kultur Bazkunak. Irailean abiatu zuen ekimena neguraino iritsi da, xede argiarekin: euskaltzaleen bilgune izango den egoitza berria eskuratzea

Erredakzioa ANDOAIN

Euskarak eta euskal kulturgintzak bihurtuz beteriko ibilbidea osatu dute azken hamarkadatan. Zailtasunez beterikoa izan da, ezin bestela, baina oztopo bakoitzari aurre egiteko hauspoa herritarren artean aurkitu izan da. Abenduaren 5ean, ostegun honetan, iraganaz eta orainaz mintzatuko zaizkigu oholtza gainetik. Jaialdia izango da, berezia, iluntzeko 19:30ean hasita. Sarrerak 10 euroko prezioan salgai daude Elizondo tabernan eta Delgado liburu-dendan. Egunean bertan, aurretik agortzen ez badira, Bastero Kulturguneko leihatilan eskuragarri izango dira.

Etokizuna irabazi asmoz

Larramendi Kultur Bazkunak egitasmoa aurkeztu zuen irailean, zeinean egoitza berri baten premia iragarri zuen. Geroztik,

diru-bilketan murgildu dira: Gau Beltzan, urrian; Azoka Bezean, azaroan; eta, aste honetan, Bastero Kulturgunean jaialdia egingo dute.

Sasoiko artistak, batetik

Olagain Andoaingo Udal Txistulari Elkarte, Urki dantza taldea, Alberto Agirre abesbatza, Maizorri txalaparta taldea, Ene-ritz Jauregi eta Ane Amutxastegi trikitilariak, Iratxo taldea, Mujika-Tolaretxipi familia eta gehiago igoko dira oholtzara.

Euskalduntasunari tinko utsi zioten artistak, bestetik

Oholtza gainean ibilbide oparoko artistak ariko dira, andoaindarrentzat aski ezagunak direnak: Lizar Makil dantza-taldea, Iñaki Eizmendi kantaria, Ramon Beraza abeslaria eta Begoña Tolaretxipi musika-irakaslea.

Herritarren agerpena

Ortizimugan helburu zehatza ageri da, herritarren eskutik irudikatuko dena: garai berri-tara egokituko den egoitza. Gaur doinu berriak ditu euskarak, doinu berriak euskal kulturak, eta hori guztia erdigunera ekarri nahi dute. Basteron ozen iragarriko da, honako hau: "Euskararen eta euskal kulturaren bihotz eta hauspo izango den egoitza eskuratu nahi dugu: Elkargunea, kulturagunea, erakusle-hoa, aisialdirako gunea, solas egitekoa, sortzekoa, amestekoa... *Egigun denon artean!*".

SARRERAK 10 EUROKO PREZIOAN SALGAI DAUDE ELIZONDO TABERNAN ETA DELGADON

Izen handiak, oholtza gainean



Begoña Tolaretxipi, artxiboko irudian. AIURRI

Begoña Tolaretxipi Lizarralde Piano irakasle izan zen Andoainean, urte luzez. Hainbat eta hainbat dira haren irakaskuntza jasotako herrikideak. Bakarka, eta etxeok lagunduta, bitara ariko da.



Lizar Makil. LIZAR MAKIL

Lizar Makil dantza-taldea 60 eta 70eko hamarkadatan euskal dantzak zabaldu zituen Andoaingo taldea izan zen. Herriko hainbat neska-mutil plazaz plaza aritu ziren dantzan.



Jendetza elkartu zen Urnietako pilotalekuan. Haietako hainbat ageri dira argazkian. AIURRI

Ansa II urnietarra da

Bigarren txapela ipini eta hilabete pasata, gogoan hartu nahi izan dute urnietarrek Imanol Ansaren kirol-lorpena. Joan den ostiralean egin zuten hitzordua, Udal Pilotalekuan, pelota-eskolako kideen partiden ostean

Erredakzioa URNIETA

Harrera beroa jaso zuen urnietarren partetik Imanol Ansa herrikideak joan den ostiral iluntzean, haren omenez Udal Pilotalekuan egindako hitzordu berezian. Izan ere, Sanmielen atarian, erremonte txapelketako buruz buruko finala irabazi zuen. Bigarrena du bere kirol-ibilbidean.

Urnieta Kirol Elkarteko pelota-eskolako kideen arteko partidekin ekin zioten egitarauari: batetik, Xabat eta Max aritu ziren, Amets eta Beñaten aurka. Bestetik, Ikerrek eta Adeik Peru eta Urko izan zituzten aurrez aurre. Bien bitartean, betetzen hasia zen harmaila, urnietarrez nahiz zalez.

Protagonistaren laguna den Ander Goikoetxeak gidatu zuen omenaldia, eta ongi-etorria eman zion Ansari, hurbildutakoen txalo hartean, Eider Manterolak nahiz Beñat Zinkunegik txalaparta jo bitartean.

Ondoren, bertsoz bertso go-raipatu zuten Ansaren ibilbidea Fermin Argiñarenak eta Unai Gaztelumendik, hurrenez hurren:

*Erremontari artista bati
kantuan hasten naizena
erakusi du erori arren
altxatutzeko gai zena.
Sehaskatikan dakarki Ansa
bere pelotari sena.
Erremontean goi mailaraino
lanean iritsi haizena
ta hiregatik zegok hain goian
Urnietaren izena.*

*Ez da bakarrik irabaztea
zuk egindako lorpena
erremontean aritzen zera
futbola denean dena
hara zerk egin zaituen handi
gure Ansa bigarrena
zu txapelduna, zu herrikoa
ta euskaraz mintzo zarena
gure haurrentzat izan daiteke
eredurikan onena.*

Doinuen eta errimen atzetik etorri zen, ondoren, Egape Dantza Taldeko kideek eskainitako Agurra, Txanbolin Txistulari Bandak gidatuta. Horrez gain, Kantazaun taldeko kide mordoxka ere hurreratu zen jendaurrera. Horrela, kantuan ipini zuten Udal Pilotaleku osoa, baita protagonista bera ere.

Amaitzeko, pelota eskolakoek oroigarri berezia eman zioten txapeldunari, omenaldia luza-roan gogoan izan dezan.

Txapeldunaren esker hitzak

"Ikaragarria da horrelako omenaldia jasotzea". Horrela ekin zion bere hitzartzeari Ansa, eskertuta. Hasi bezala, aurkezle-lanetan zebilen Goikoetxea urduri jartzeko tartea hartu zuen protagonistak jarraian: "Hasieratik, ondoan egon gara, hamabost urte, erremontearen alde lanean, badakit zer lan egin duen berak eta aitortza egin nahiko nioke". Julen Loitegi botilleroaren meritu ere bada, Ansaren hitzetan, txapela: "Falta nuen konfidantza eman zidan, eta, orain bi txapel baditut, beregatik ere bada". Ondoren, eskertza-zerrendan, ezin aipatu gabe utzi etxeakoak eta kuadrillako lagunak: "Nire ametsa lehen txapela lortzea izan zen, aitari eskeintzeko. Bigarrena, nolabait, autosuperazio jomuga izan zen. Orain, etorkizunari begira, horrelako omenaldia jasota, ea hirugarren txapela lortzerik dudan!"



UKEko pilotari gazteak Urnietako txapeldun handiarekin. AIURRI



Fermin Argiñarena eta Kantazaun taldeko kideak omenaldian izan ziren. AIURRI



Egape Dantza Taldeko eta Txabolin elkarteko kideak, omenduarekin. AIURRI



Juan Mari Ansa, Xabier Ansa eta Antonio Tapiadorrekin Alpamayako gailurrerako bidean. AIURRI



Juan Mari Ansa eta Maria Luisa Etxeberria, 1970eko kopatxea, eskuetan. AIURRI

Euskalduna bihotzean darama Juan Mari Ansak

Juan Mari Ansa Munduate mendizale eta idazlea Mendi Astearen protagonistatkoa izan da. "El circo de Lescun" liburua aurkeztu aurretik, Euskaldunarekin eta Andoaingo mendizaleekin estuki lotzen duten istorio bana kontatu zien ikusleei

Erredakzioa ANDOAIN

Auñamendi eta Hiru Erregeen Mahaia mendi garaien tartean, ekialderaxeago dago Laskun zirkua. Gertu geratzen dira, hala nola, Atxerito edo Ansabereko orratzak. Ansak mendi gailurrerako igoeren edo zeharkaldien azalpenak, eta inguruko makina bat historia bildu ditu, edizio zaindua duen liburuan.

Xabier Ansa, espedizio kide

1996an Europako Pikoetan istripuz hil zen Xabier Ansa Zerberio mendizale andoaindarra hartu zuen gogoan. Harekin goi mailako zenbait mendi espedizio partekatu zituen. Peruko Andeetan 5.947 metro dituen Alpamayo mendirako igoera aipatu zuen bereziki: "Gauean ez nuen lo askorik egin, eta teknikoki

ez nuen ikusten nire burua igotzeko moduan. Gosaria prestatzen ari ginela esan nion: "Xabi, lo ez diat ondo egin, eta ez nauk kapaz ikusten horra igotzeko". Hara zer erantzun zidan: "Hi, mendi bat igo behar diagun bakoitzean horrela jartzen bagaituk, ez ginatke inoiz igoko. Jantzi hadi eta goazemak!". Eta hala, igo ginen Alpamayora".

Juan Mari Ansa, Euskaldunari esker da idazle

Gaztetan, 13 urte zituela, Euskaldunak 1970eko otsailaren 22an antolatu zuen I. Gazteen Martxa Neurturen parte hartu zuen: "Berezitasun bat zeukan martxa hark, helmugara iritsi ostean, txangoaren gaineko kronika idatzi beharra zegoela". Hiru lagunek hartu zuten parte, eta bera-ri egokitu zitzaion idatzia egitea: "Seiko puntuazioa eman zidaten. Ez zen aparteko ezer izango, baina hori bai, lehenengo aldia izan zen mendiarekin lotutako zerba-itatzi nuela".

Ansak gogoan dauka Luxio Aranburu, Maria Luisa Etxeberria eta beste zenbaitek antolatu zutela mendi irteera hura. Beti egongo dela eskertuta Euskaldunarekin, mendizaleetasunaren arloan lehenbiziko idatzia egitera bultzatu ziolako.

Era horretan, entzuleen artean zegoen Maria Luisa Etxeberriari altxatzeko eskatu zion Ansak, eta biek argazkia ateratzera gonbidatu zuen. Ez zen nolana hiko argazkia izan: Izan ere, 1970eko mendi martxa hartan irabazitako kopatxea gordeta eduki du beti, eta hura eskuetan zuela atera nahi izan zuen argazkia.

Xabier Huitzi Belamendia, 1983ko trekkinga gogoan

1983an Austriako Tirolera egin zuten irteera gogoan hartuz, aurreko ostiralean hitzaldia eta proiektzioa izan zen Xabier Huitziren eskutik. Berrogei lagunek osatu zuten Austriara egin zuten irteera, eta trekkinga eta turismoa uztartu zituzten. Huitzik, bereziki, bidaia hartan izan ziren Arantza Arruti, Jabier Mujika, Joxe Manuel Garmendia eta Pablo Usandizaga gogoan hartu zituen.

BI NAKAKO

ORONA Fundazioa

ABENDUAK 7 LARUNBATA | 16:30ETIK AURRERA

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

1. PARTIDA

GOIKOETXEA V - GOIKOETXEA VI vs SUSPERREGI - AIESTARAN VI

2. PARTIDA

URRIZA - LARRAÑAGA vs SEGUROLA - BARRENETXEA IV

3. PARTIDA

IRAZU - ZALDUA vs JABALERA - APEZETXEA

BARRENETXEA

Orona

AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Mikel Laboa

Kantariaren bizitzari, haren ahotsari eta haren musikari egiten zaion omenalditzat hartu daiteke erakusketa.

Erakusketa gela. Bastero.

AZOKA

DURANGO Durangoko Azoka

Musika, literatura, antzerkia...

Askotariko ekoizpenen aurkezpena egingo dute Durangon.

Kulturzaleentzat garrantzi handiko hitzordua da. Askoren artean

Garbiñe Larrea urnietarrak bertan aurkeztuko du liburu berriena.

Elkarrizketa, 6-7 orrialdeetan.

Landako Gunea eta inguruak.

Abenduaren 5etik 8ra.

DOKUMENTALA

ANDOAIN Aire!

Maurizia Aldeiturriaga, XX.

mendearen hasieran euskal musika herrikoia goitik behera aldatu zuen panderojole ikonikoan inspiratuta.

18:30, Bastero. 3 euro.

Abenduak 4, asteazkena.



Maizorri txalaparta taldekoak Basteron ariko dira. AIURRI

ANDOAIN Euskararen aldeko jaialdia, Larramendi Bazkunaren eskutik

Atzoko, gaurko eta biharko artisten eskutik.

Sarrera: 10 euro. Salgai: Delgado, Elizondo eta Basteroko leihatilan.

Abenduak 5, osteguna. 19:30, Bastero Kulturunea.

IRAKURKETA

ANDOAIN Irakurketa-kluba

2019-2020an jaiotakoentzat.

17:30, Udal Liburutegia.

Abenduak 10, astearta.

KONTZERTUA

ANDOAIN Esti Markez

"Atenporal" diskoa aurkeztuko du.

19:30, Bastero Kulturunea.

Abenduak 13, ostirala.

DANTZA

URNIETA Amama

Aukeran Dantza Konpainiaren

eskutik. Euskal dantzetan

oinarritutako koreografiaren bidez,

zazpi ipuin kontatuko dira, zazpi

euskal lurraldeetako herri banatan

kokaturik gai eta pertsonaia

ezberdinekin. Edu


Muruamendiarazen

zuzendaritzapean.

17:30, Sarobe. Sarrerak, agortuta.

Abenduak 15, igandea.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****¿Quien es quien?**

Azaroak 30, larunbata. 19:30.

Abenduak 1, igandea. 19:30.

Abenduak 2, astel.

17:00, 19:30.

Central Parkeko**heroiak**

Azaroak 30, larunbata. 17:00.

Abenduak 1, igandea. 17:00.



SINOPSISIA

¿Quien es quien?

Zuzendaria: David P. Sañudo. **Aktoreak:** Kira Miro, Salva Reina, Elena Irureta, Sofia Otero, Marti Cordero, Ana Jara Martinez, Aitor Luna,... **Herrialdea:** Espainia (2024). **Hizkuntza:** Euskara. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 105 m.

Endredoizko komedia

Asteburu luze honetan, komedia familiarra, Bastero Kulturunean, "Le sens de la famille" (2020) film frantsesean oinarritua.

Fuentestarrak ez dira munduko familiarik onena. Baina, zein familia da? Lanak, ikastetxeak eta errutinak inkomunikazio-egoera batera eramanez, eta ezinezkoa dirudi hori geldiaraztea. Dena aldatuko da Valentinak bere bederatzigarren urtebetetzean desio bat eskatzen duenean. Hurrengo egunean, familia osoa beste baten gorputzarekin esnatuko da: aita emaztearen gorputzean, neskatoa amonaren gorputzean, biki nerabeak ez dira beraiek izango... Anabasa jabetu egiten da familiaz, eta etsipenez galdetuko diote elkarri: nor da nor? Eta, batez ere, honako hauxe izango da arazoa: gai izango ote dira beren jatorrizko gorputzetara itzultzeko eta beren bizitzak berreskuratzeko?



ZOKKETA

ANTZERKIA

Aiurriko harpidedun izateak saria dakar



Urnietako harpidedunen artean zozketa egin eta gero, sariduna Belen Izagirre Garmendia da. Zorionak!



Urnietako
udala

MANIFESTUA | ABENDUAK 3, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2024

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA EUSKAL HERRIA

Larrialditik indarraldira igarotzeko mugimendu bat

Larrialdi linguistiko gisa izendatzen hasi gara berriki euskarak eta euskaldunok bizi dugun egoera. Euskararen alde gabiltzan eragileok sakatu dugu alarma gorria. Zergatik, ordea? Hamaika dira euskararen egoera larria dela esateko arrazoiak, baina hiru argudio emango ditugu.

BAGA: egoera soziolinguistikoaren bilakaera. Euskararen ezagutza goranzko bidean badago ere, hiztun askok euskaraz eroso jarduteko gaitasun kamutsa du; erabilera goia jo dugun sententzia dugu, eta eremu euskaldunetan galerak ematen ari dira. Gauzak ezberdin egiten hasten ez bagara, atzera egiteko arriskua daukagu.

BIGA: euskararen eta hiztun komunitatearen estatusa. Nafarroako zati handiengan eta Ipar Euskal Herrian euskara hizkuntza ofiziala ez

izateak ondorio larriak ditu hizkuntza-politika iraunkor eta emankor bat egiteko orduan. Eta hori aski ez, eta azken aldi bizi dugun oldarraldi judizialak ikusarazi digu, euskara ofiziala den eremuetan ere, euskara biziberritzearen aldeko lege babesak arrakalak dituela.

HIGA: joera globalen eragina. Globalizazioak eragindako korrante homogeneousatzailea hizkuntza gutxitu eta txikien kontrako norabidean dator, eta bizimoduaren digitalizazioaren eraginez, geroz eta modu basatiagoan kolpatzen ari da hegemonikoak ez diren hizkuntzak, kulturak eta herriak. Egun munduan hitz egiten diren hizkuntzen erdia mende amaierarako desagertuta egongo dela dio Unescok, eta euskara arrisku egoeran dauden artean kokatzen du.

Katalanak eta galziarrak ere euren egoera larrialdi linguistiko gisa izendatzen hasiak dira. Eta hiztun komunitateekin ez ezik, bestelako mugimenduekin ere lotzen gaitu larrialdi egoeraren kontzientziak: azken aldiak, klima-aldaketaren kontzeptuak indarra galdu, eta klima-larrialdia gailendu da. Ez da kasualitatea; hizkuntza aktibismoak eta ekologismoak antzekotasun esanguratsuak dituzte: biek ala biek jarduten dute homogeneousazioaren kontra eta aniztasunaren alde, eta batak zein besteak bilatu dute, suntsipenera daramatzan joera globalaren aurrean, jendarteak erreakzionatzea.

Ekologismoari begira, larrialdiaren ideia bezain baliagarri izan dakiguke trantsizioarena. Klima-larrialdiaren aurrean, trantsizio ekologikoa

proposatzen da: eredu sozio-ekonomikoa eraldatzeko premia aldarrikatzen da, planetako baliabide naturalen ustiapen intentsibo, sistematiko eta kutsatzailea albo batera utzi, eta ingurumenarekiko jasangarriagoa izango den eredu baten alde eginez.

Begi bistakoa da korrontearen kontra ari garela, eta orain artekoan segituz gero, nahiko lan izango dugula egoerari eusten. Horregatik, alarma gorria sakatu dugu erreakzio bat eragiteko, trantsizio bat aktibatzeke, larrialditik indarraldira igarotzeko. Erreakzio bat behar dugu, dimentsio guztietan: euskarak eta herri honek behar duten jautzia egin ahal izateko, eraldaketa sozial sakon bat behar dugu.

Ez da euskara eta euskaldunok egoera larrian egon garen lehen aldia: honaino iritsi bagara, euskaldunon kemenari eta

bizinahiari esker izan da. Bateko eta beste korronteen aurrean, gure tokia bilatzen jakin izan dugu, errekan gora doan izokinak bezala. Eta hala egin dugu badakigulako asko dugula irabazteko: euskaraz ere bizi ahal izango den herria herri hobe izango dela; justuagoa, berdinezaleagoa, kohesionatuagoa, eta zoriontsuagoa, nean.

Denok dugu eraldaketa honetan eragiteko aukera eta ardura; nor bere alorrean, trantsizioa aktibatzeke eragile izan daiteke. Baina sakoneko eta egiturazko baldintzetan eragin ahal izateko, norabide berean eta saretuta ekin behar dugu denok. Jakina, euskaltzaleen mugimenduak badu honetan guztian zeregina, eta aldaketa norberarengandik hasten dela jakitun, eragin nahi dugun tamainako eraldaketa gorpuztea dagokigu.

Euskarak mugimendua behar du, eta gu mugitzera goaz.

2025 zain duzu! Laster, zurean izango gara Gipuzkoako egutegiak banatzen

Egutegiak banatuko
diren gunek eta
ordutegiak ezagutu

Ehunka argazki eta bideo, sarean



AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA